BIZITEGI ERAIKINA — SAN MARTIN 18

D MAILA

Egilea eta data: Jose Maria Mujica; 1890

Deskribapena

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, azkena zertxobait atzeraemana. Harlanduzko fatxada 3. goi oineraino. Hormigoizko begiratokia du kantoiko alakan, eta kantoiko erematea klaustro kupula moduan. Proiektu komuna San Martin 16rekin eta Hondarribia 13rekin eta 15ekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 4. goi oina.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; elementu moldekatuak; begiratokia eta kupula.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen direnak –behe oineko fatxadaren konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.